

113.13. Nola identifikatu *fake news* bat

Nola atzeman *fake news*-ak



Ez fidatu handiak diren eta letra larriz dauden titularrez

Horrelako titularrak emozioak eragiteko eta sare sozialetan interesa pizteko diseinatuta daude. Izan ere, horiek nabarmendu egiten dira sareen eguneraketetan.



Adi URL helbideei

Askotan, ezagunak diren webguneen antzeko helbideak erabiltzen dituzte albiste faltsuak zabaltzen dituztenek. Irakurlea nahasteko eta zilegitasuna emateko egiten dute hori iruzurtiek.



Nor da egilea?

Egilea ezezaguna egiten bazaigu, lehenik eta behin erreala den baieztatu beharko dugu. Hedabide batek zabaldu badu albiste, horren inguruko informazioa bilatu beharko dugu. Normalean, albiste faltsuak zabaltzen dituzten webguneek ez dute horri buruzko inolako informaziorik ematen.



Iturri lokala bilatu

Gertakariak jazo diren lekuan egon den pertsona bat kontsultatu, datuak egiaztatzeko edo gezurtatzeko.




Estekak eta informazio-iturriak arakatu

Albisteek dituzten informazio-iturriak eta estekak baieztatu beharra dago. Azken horiek funtzionatzen ez badute, edukia iruzurtia izan daiteke eta ez genuke hori konpartitu behar.



Argazkien alderantzizko bilaketa egin

Hedabide askok testuingurutik kanpo dauden argazkiak argitaratzen dituzte iruzur egiteko. Googlen irudi horien bilaketa egin daiteke, alde zuzenetik horiek publikatuak izan diren eta non jakiteko.



Argitaratze-data egiaztatu

Badira albiste zaharrak argitaratzen dituzten hedabideak. Hala ere, askotan, horrek ez du esan gura gaur egungo gertakizunekaz zerikusik daukatenik.



Broma bat da?

Albiste bera sinesgaitza edo oso bitxia bada, baliteke broma edo satira bat izatea. Eduki hori zabaldu duen webgunea ikertu, baita bere egilea ere, mota horretako edukiak normalean partekatzen dituen jakiteko.